

BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA GURUTZE

ZENBATGARREN SAIOA : 1

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2015-11-16	19:40	21:25

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: Jexux Leonet, Iosune Cousillas, Eneritz Arbelaitz, Iñaki Pikabea

Kopurua: 9

16-30 urte: 0	Emakumeak: 3	Euskaraz
30-50 urte: 6	Gizonezkoak: 6	
>50 urte: 3		

AKTALARIA: Eneritz Arbelaitz

	GAIA	ERABAKIA
1	Aurkezpena	Taldea aurkeztu da, bileraren egitura, eta kontakturako fitxa pasa da.
2	Aurrekontuak 2016 19:43	<p>Jexuxek aurrekontuen zirriborroa aurkeztu du.</p> <p>Herritar batek galdetu du ea gastuen atalean kapitulu bakoitzean ehuneko jakin bat igo ote den. Jexuxek azaldu du pertsonalaren kapitulua %1a igo dela, eta besteak udalak dituen kontratuen arabera lotua dagoela.</p> <p>Auzotar batek galdetu du ea ur hoditeria bidegorriaren azpian geratzen den eta erantzun da Olatxetik fortalezarako bitarte horretan berritu behar dela eta azpian geratzen dela hodia.</p> <p>Batek galdetzen du udalak gehiago zorpetzeko zein beldur duen. Jexuxek esan du zorpetze maila legez Rajoik asko arautu duela. Zorrak zama ez duela izan behar azpimarratu da. Gaineratu du mantenuan ere lan handia dugula.</p> <p>Beste batek aipatu du Lintziringo errepidearen konponketak herritarroi ez digula asko eragiten. Bertako enpresek erabiltzen dutela eta haiek ea ezin ote duten ordaindu. Jexuxek erantzun dio orain arte ez delako ezer egin oso egoera txarrean egotera iritsi dela. Zuzeneko zergetatik enpresek ere asko ordaintzen dute, eta udaleko diru sarreretako gaztaren zati handi bat da. Carrefour, Lintzirin eta aldundia ere inplikatu nahi dira.</p>

3	2015eko lanak	<p>losunek aurreko urtetako eskaerak zein egoeratan dauden azaldu ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Frontoi aurreko baranda: egina. Bizilagun batek aipatu du baranda buelta guztian jartzea erabaki zela eta gunee batzuetan soilik jarri dela. Plazaren bueltan falta da. Udaletxean herritar honi esan zitzaion karraskillo moduko bat jartzea aurreikusten zela. Karraskilloa lehen ere dagoen tokietan ez dela zaintzen aipatu da. Oso gunee txikia falta da, galdos aldera. Bestetik, baranden diseinua herri guztian bera izan beharko lukeela aipatu dute. - Motoentzako aparkalekua: ekarpen gunee ondoan egingo da. Beheko aparkalekuan ere zati batean motoena jartzea. Hasieran udaltzainekin jarraipena egin beharko da, abisuak jarri. Batek komentatu du ea hotelaren aldean ere aparkalekua egin ote daitekeen. Hori partikularra da. Aipatu da beheko aparkalekutik gora argiteria jarri gero, gehiago erabiliko litzatekeela. - Frontoitik aparkalekura argiteria: egingo da. - Kamioientzako seinaleak eta aparkalekuko seinaleak: aldundiarekin bileran aipatuko diegu. Aipatu da autopistako irteeran jarri behar direla seinaleak. <p>Auzotar batek komentatu du Gurutzen espaloian kotxeak ez aparkatzeko trabak jartzea hitz egin zela. losunek erantzun du iaz iritzi ezberdinak egon zirela. Batek komentatu du orain jende gehiagok erabiltzen duela aparkalekua. Udaltzainak etortzen dira eta eragina izan omen du. Aurten ere iritzi ezberdinak daude: ea beti trabak jarri behar diren alde batetik, eta bestetik errepidea asko oztopatzen dutela kotxeek eta traba jarri behar dela. Harri batzuk jarri, kosturik gabe. Jexuxek dio heziketa kontua ere badela. Batek dio traba gehiago egiten dutela jolas parkean motoek.</p>
4	2016ko inbertsioak	<p>Lau urteko ikuspegia eduki behar dugula azaldu da. Urtero auzotako partidak indartzen joango dela aipatu du Jexuxek, baina ekintzak aurrera ateratzeko lau urteko ikuspegia eduki behar dugula proiektuak aurrera ateratzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espaloia: ekainan aldundiarekin lanketa bat egin zen partehartze prozesu batean eta oarsoaldea mailan lehenengo ekimen bezela geratu zen. Partehartze prozesua bertan behera utzi du aldundiak. Hilabeteko epean proiektuaren erantzun zehatza bidaliko diete. Jexuxek aipatu du ez dela proiekturik aterako aurrera. Jexuxek aipatu du plan orokorraren arabera fraileen bidera bide bat egiteko aukera utzi dela. Planoan aztertu da. <p>Batek aipatu du ez dela segurua alternatiba hori. Jexuxek dio Sistio baserrira joateko ere zaila dela eta hortik plazara zailagoa. Lehenik aurrekontuen muga baitago. Boladizoak ea ezin ote diren jarri dio beste</p>

		<p>batek.</p> <p>Beste batek dio legarreatik bideratzea batzuentzat aukera izan daitekeela. Baina auzoaren eskaera da errepide ondotik espaloia egitea. Dirutza da arazoa. Beste alternatibekin gurutzeko eskaera ez litzateke asetuko. Beraz, alternatiba hau egiten ere ez dirua gastatzea esan dute.</p> <p>Jexuxek aipatu du Oiartzun oso zabala dela eta oso zaila dugula errepide ondotik Karrika, Ergoien eta Gurutze lotzea.</p> <p>Aipatu dute Altzibartik Karrikara ere bidegorri polita dagoela.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Arkaleko pinudia mozteko eskaera egin du batek. Harkaitza pinurik gabea ezagutu dute, bertako haritzarekin, urkiarekin, gaztainarekin. Orain zikina dago eta pinua gaitzarekin dago. Ehiztariek landatu omen zuten. Lehen erantzun omen zen pribatua zela, baina hirigintzan begiratu zuen eta herriarena da. Bestalde, trepa bat erori omen da eta inork ez du jaso. - Beste batek galdetu du Beloagarentzat aurrekonturik badagoen. Baietz erantzun da.
5	Mantenu lanak	<ul style="list-style-type: none"> - Paperontziak behar dira beheko aparkalekuan. Erabilera handitu egin da eta beraz, hondakinak pilatzen dira. - Bizardia elkarteak eskaera sartu zuen maiatzean menditik lurra jaisten delako eta aurrekontu batzuekin auzolanean konpontzeko. Ez da oraindik erantzunik jaso. Maiatzaren 21ean eskatu zen. - Aurreko gaiarekin lotuta, beste auzotar batek gehitu du duela hiru urte egindako eskaera oraindik erantzun gabe dutela. Autokarabana gunea bat sortzeko eskaera izan zen. Esan da begiratuko dela eta ahal badu berriro eskatzeko.
6	Balorazioa	Balorazio orria bete da.

Lehentasanak:

- Baranda jartzen bukatu.
- Argiteria beheko aparkalekutik
- Herriaren eta auzoaren arteko lotura oinezkoentzat. Gai honek bilera gehiago eskatzen dituela aipatu du Jexuxek.

Balorazioa	
------------	--

2015 URTEA

2016ko aurrekontuak



Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,71
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,57
Bileran erabili den metodologia	8,29
Herritarren asistentzia	5,71
Herritarren partehartzea	6,86
Saioa probetxugarria izan al da?	8,00
Egunaren egokitasuna	7,75
Orduaren egokitasuna	9,00
Lekuaren egokitasuna	8,75
Denera batatz beste	7,96

Komunikazio bideak	kop	%
Bandoa/kartelak	1	7,14
Irratia eta prentsa	0	0,00
Sare sozialak	6	42,86
Ahoz-ahoz	1	7,14
Udal aldizkaria	6	42,86